



Egunon denoi eta mila esker gurekin izateagatik.

Gaur oso egun berezia da gure Herriarentzako. Gaurko egunez, 1936garren urtean urriaren 7an, Jose Antonio Agirre eta Lekubek Eusko Jaurlaritza osatu eta Lehendakari kargua zin egin zuen Gernikako zuhaizpean.

Mundu Batzar honetan ordezkatzan dituzuen euskaldun askok ondo gogoratzen dute egun hura. Zergatik? Agirre Lehendakariak, hainbat euskaldunekin batera, Euskadi utzi egin behar izan zuelako. Atzerrira joan eta bizitza berri bat hasi, eusko lurretik urruti.

Gaur omenaldia den oroimen honekin hasi nahi izan dut. Merezi dute eta merezi duzue. Urteak joan eta urteak etorri, mundu zabalean euskal izana eta izena mantentzen lagundu duzuelako.

Zuei esker Euskadik izen ona dauka munduan. Zuei esker ez da itzali gure Herriaren argia, nortasuna eta sena, munduko Herrialde guztietan.

He querido comenzar con un recuerdo a José Antonio Agirre, proclamado primer Lehendakari de Euskadi un día como hoy, 7 de octubre, del año 1936.

Abrimos este Congreso con un recuerdo emocionado a quien, junto a miles de vascas y vascos, luchó por nuestra libertad y contribuyó a sentar las bases de la institucionalización de Euskadi.

Un recuerdo a quien junto a miles de vascas y vascos tuvo que exiliarse, encontrando acomodo en diferentes Países del mundo.

Vuestro compromiso e ilusión mantienen viva la llama de Euskadi en el mundo, el alma vasca de nuestro Pueblo.

Juntos damos continuidad a un proyecto sustentado en principios sólidos y valores compartidos. Hoy el mundo reconoce la "palabra de vasco"; el compromiso con la identidad y la cultura; la visión humanista, el interés por el desarrollo integral de la persona; el espíritu de superación, la solidaridad y la justicia social.

Son valores que se asocian al Pueblo Vasco en todo el mundo. Hoy es un buen día para agradecer vuestra contribución a este logro colectivo.

“Diasporizatu” hitza aukeratu da Mundu Batzar honetako izenburu.

Berez, existitzen ez den terminoa da.

Zergatik egin dugu hau?

Euskadira begira jarri gara Mundu Batzar honetan, kanpotik barrura begira, alegia.

Kanpoan ditugun komunitateek eskaintzen digutenaz jabetu arazi nahi dugu euskal gizartea.

“Diasporizar” significa reconocer lo que hacéis por Euskadi desde vuestros Países.

A lo largo de estos seis Congresos hemos ahondado las relaciones y estrechado vínculos con las 188 comunidades reconocidas en 25 Países.

Hemos avanzado en programas destinados a vuestras comunidades, aunque reconozco que debido a la crisis no siempre hemos podido cubrir todas vuestras demandas y necesidades.

En cualquier caso, escucho con agrado vuestra pregunta más frecuente: “¿cómo podemos contribuir al desarrollo de Euskadi?”

Como Lehendakari, os respondo que este Congreso trata precisamente de poner en valor lo que hacéis, la enorme contribución que realizáis al buen nombre de Euskadi en el mundo.

Nos hemos propuesto hacer girar la mirada a la sociedad vasca, a la tierra de origen, a quien va destinado el lema de esta sexta edición del Congreso: “Diasporizatu”, “Diasporizar.”

Queremos poner el foco de atención de los medios de comunicación y de la sociedad sobre la labor que estáis realizando desde vuestras instituciones, desde hace más de cien años en algunos casos.

Somos un Pueblo con una historia, una cultura y una clara vocación de Autogobierno. En estos momentos asistimos a una campaña institucional y política que pretende cuestionar el Concierto Económico Vasco, la clave de bóveda de nuestro Autogobierno.

Cualquier modificación unilateral del Concierto Económico es una línea roja que no podemos permitir que se traspase. No entendemos este ataque deliberado a un sistema histórico, pactado, legal, solidario y eficaz, que solo redundará en beneficio de la ciudadanía.

Zuen eginkizunean euskara eta kultura lantzeko eta indartzeko egiten duzuen ahalegina eskertu nahi dut.

Lortzen ari gara euskarak eta kulturak gero eta garrantzi gehiago hartzea gure gizartean: Amama eta Loreak filmak Zinemaldian parte hartu dute, bigarren hau Oscarren bidean dago; "Euskara Munduan" programak 25 urte bete ditu; e-liburutegia martxan jarri dugu; Tabakalerak ateak ireki ditu eta datorren urtean Donostia Europako kultur hiriburua izango da.

Hau gu guztion erronka da. Gertu zaudete, kulturak eta euskarak elkartu egiten gaituelako.

Jarrai dezagun bada bide honetan, orain mundu global eta ireki honek eskaintzen dizkigun baliabideak erabiliz. Hori da "Basque Global Network" eginkizunaren helburua.

Herri bat gara. Gure historia, kultura eta nortasuna dugu. Autogobernua defenditzen dugu.

Egun hauetan Euskal Itun Ekonomikoaren aurkako kanpaina baten murgilduta gaude. Hainbat erakunde eta alderdi politikok bultzatutako kanpaina da. Kanpaina honen bidez euskal Autogobernua ahuldu nahi da.

Euskal Itun Ekonomikoaren aldebakarreko edozein aldaketa onartezina da. Lerro gorri bat da guretzako, ez dugu onartuko. Ezin dugu ulertu eraso hau, Itun Ekonomikoak historia eta legearen babesa dauzka, adostutako sistema da, solidarioa eta hiritarren ongizatearentzat positiboa dela erakutsi du.

Encontráis una nueva Euskadi. Existía un factor distorsionante que nos dejaba fuera de juego en el contexto internacional. Las únicas referencias a lo vasco eran las vinculadas a la violencia y el terrorismo.

Esto ha cambiado y coincide con un renacer y un mayor interés por la cultura vasca:

-El New York Times ha presentado el Jaialdi de Boise como un gran evento de interés cultural.

-Contamos con la plataforma e-liburutegia un catálogo de 7.000 libros en internet.

-Celebremos el 25 aniversario de "Euskara Munduan."

-Hemos abierto Tabakalera y nos acercamos a la puesta en marcha de Donostia 2016 como capital europea de la cultura, un auténtico reto de País.

-Termino con una referencia a la película "Loreak" que ha iniciado la carrera a los Oscar.

No sé si esa película, embajadora de lo vasco en el mundo, ganará o no el Oscar. Lo que sí sé es que este y otros proyectos ponen el foco en la vitalidad del euskera, de la cultura vasca y de nuestro País.

Ofrecer al mundo un ramo de flores, "loreak", es un símbolo cargado de significado.

Este es el significado de este Congreso Mundial para un Pueblo Vasco activo, con personalidad propia y abierto al mundo.

Eskerrik asko denoi Mundu Batzar honetan parte hartzeagatik eta egiten duzuen lanagatik.

Agirre Lehendakariaren esaldi batekin bukatuko dut:

"Sendotu daiguzan geure oiturak, geure izkuntza eta euskalduntasuna. Itz baten esateko, indartu daigun geure nortasuna."

Eskerrik asko denoi eta zorte on datozen egun hauetarako!

Iñigo Urkullu
Lehendakaria